

ebakuazioa
emergentzia-egoeran

13

INFORMAZIO-GIDA



DEFINIZIOAK

Emergentzia

Ustekabeko egoera da emergentzia; pertsona, instalazio eta/edo prozesuei kalte egiteko arriskua sor dezake eta horregatik **behar-beharrezkoa da lehenbailehen neurriak hartzea**, gerta litezkeen kalteak aurreikusi, gutxitu edo indargabetzeko.

Emergentzia-plana

Emergentzia-planari esker **bitarteko teknikoak eta giza baliabideak** era egokian erabiltzeko **plangintza eta antolaketa** egiten da, **Emergentzia-egoera** batean gizakiek eta/edo ondasunek ahalik eta ondorio kaltegarri txikienak izan ditzaten.

Ebakuazio horizontala

Solairu beraren barruan egiten den ebakuazio-mota da: gela batetik bestera, edo korridore batera, gune batetik bestera, etab., baina beti solairu berean.

Ebakuazio bertikala

Solairu batetik bestera edo kanpoaldera egiten den ebakuazioa da.

HORRI DAGOZKION ARRISKU NAGUSIAK:

PERTSONEN MOBILIZAZIOA

Pertsonen mobilizazioarekin/manipulazioarekin erlazioa duen arrisku aipagarrienetako **gehiegizko esfortzua** da. Hau sor dezaketen arrazoiak:

- **Emergentzia-egoeraren berezko ezaugarriak** (bizkortasun beharrezkoa)
- **Gaixoen ezaugarriak** (pisua, autonomia, tratamenduak sortutako oztopoak, bat-bateko mugimenduak, etab.)
- **Eremuaren berezko ezaugarriak** (leku libre nahikoa izatea mugimendua gauzatu ahal izateko, zoruaren egoera, argiztapena, tenperatura, etab.)
- **Jardueraren berezko eskakizunak** (egin beharreko distantzia, etab.)
- **Banakoaren arrisku-faktoreak** (trebetasun fisikoa, jantzi-mota, oinetakoak, heziketa, aurretik izandako patologiak, etab.)

Beste arrisku batzuk emergentzia sortu duen arrazoiak sortuak dira: sute-alarma, produktuen jarioa (arrisku kimiko edo biologikoa), etab. (Ikus **Emergentzia-egoerak** izeneko informazio-gida).

EBAKUAZIOA EGIN BEHAR IZANEZ GERO

- **Ospitale bat ebakuatzeko, mailakako ebakuazio horizontaleko printzipiotik abiatu behar da**, ospitalizazio-aldeetan batez ere sektorizazio-mekanismoak aplikatuz. Jarraitzen den ordena honakoa da:
 - 1º) Sute-gunetik gertuen daudenak.
 - 2º) Ebakuatzen errazena direnak (ezinduak ez diren pazienteak, bisitak)
 - 3º) Irteeratik gertuen daudenak.
 - 4º) Gainontzekoak.
- Pazienteen **ebakuazio bertikala** ospitale baten barruan ez da eraginkorra izaten denbora asko eskazten duelako. **Ospitalizazio-aldeetan** suteko emergentzia-egoeretan, **azken aukeratzat hartu behar da**. Kasu horretan ordena honakoa izango da:
 - 1º) Keak, beroak,ugarrek eragindako solairuak.
 - 2º) Goiko eta beheko solairuak.
 - 3º) Solairurik altuenak.
- Une jakin batean gerta liteke gela, eremu edo solairu bat ebakatu behar izatea. Azken kasu horietan bereziki, pertsona jakin batzuk arduratuko dira koordinazio-lanez. Arau orokor gisa, honako jarraibide hauek bete itzazu:
 - **Utzi berehala** egiten ari zarena.
 - **Ez larritu**, ez hasi korrika, ez egin oihurik.
 - Ebakuazioa egin bitartean **lasaitu ezazu** jendea, eta erabakitasunez jokatu.
 - Adierazi jendeari non dagoen hurbileneko ebakuazio-bidea edo larrialdiko irteera.
 - **Ez utzi INORI** sua dagoen eremura **ITZULTZEN**.
 - **Ez utzi inori igogailuak erabiltzen**.
 - Ibili beti bata bestearen atzetik jarrita eta hormaren ondotik.
 - Ate bat ireki behar izanez gero, aurretik uki ezazu; beroa badago, **EZ IREKI**.
 - Egiazta ezazu ez dagoela inor eta itxi itzazu ikuskatutako aldeetako ateak.
 - Ez utzi jendeari irteeretan pilatzen.
- Paziente edo pertsona ezinduen kasuan, lagundu egin behar zaie lekuz aldatzen.

PERTSONA EZINDUEN EBAKUAZIOA

PERTSONA BATEK LAGUNDUZ GERO



Gurpil-aulkia edo aulkia arrastatuz



Manta batekin arrastaka eramanez



Oinetatik edo eskuetatik arrastatuz



Sorbaldetatik arrastatuz



Bizkarrean

BI PERTSONEK LAGUNDUZ GERO



Laguntzaileen eskuekin aulki bat eginez



Bizkarretik eta oinetatik helduta



Sorbalden artean



Maindire edo manta batekin arrastaka eramanez



Ohearekin (oro har, saihestu egin behar da hartzen duen lekuagatik)



Ebakuazio bertikala (azken aukera) aulki baten bidez

EGOERA BEREZIAK

● Ateratzerik ez baduzu:

- Gela batean sartu.
- Itxi ateak eta leihoak.
- Itxi saretak trapu bustiekin eta hoztu ateak urarekin.
- Leiho ondoan jarri, kanpotik ikus zaitzaten.

● Keaz beteriko lekuak

- Zeure burua babesteko, estali ahoa eta sudurra zapi batekin.
- Makurtuta ibil zaitetz (lau hankan), hormaren ondo-ondotik.